

Hizkuntza Eskubideen egoera 2018



HIZKUNTZ ESKUBIDEEN
BEHATOKIA

Izenburua: HIZKUNTZA ESKUBIDEEN EGOERA 2018

Mota: urteko txostena

Egilea: HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA

Argitaratze data: 2019ko ekainaren 26a

Argitalpen digitala: www.behatokia.eus atarian eskuragarri

Oharra: argitalpen honetan agertzen diren datuak, informazioa eta abar baliatu nahi izanez gero, iturria aipatzea eskertuko genuke.

Hitzaurrea	4
Sarrera	5
Herritarrak akuilari	6
01 Osasungintza	9
02 Herrizaingoa eta Segurtasuna	14
03 Justizia	18
04 Hezkuntza	21
05 Administrazio jarduera orokorrak	24
06 Udalak eta Herriko Etxeak	28
07 Lan mundua	31
08 Kultura, aisia eta kirola	34
09 Kontsumo zerbitzuak eta interes orokorreko zerbitzuak	38
10 Ondorioak	42
11 Datuak	46

“Interesgarria da udalekiko harremanetan eta bertan gertatzen diren urraketak erdigunera ekartzea, instituzio hurbilekoenak izanik, aukera handiagoak izango ditugulako aldaketak eragiteko.”

Beste urte batez Hizkuntz Eskubideen Behatokiak geure egoerari buruzko argazkia eskura jarri du mahai gainean. Euskal Herrian euskaraz bizitzeko hautua egin duten herritarrek pairatutako bereizkeriak kudeatu ditu beste behin Behatokiak. Herritarren bizipenetan oinarritutako argazkia dugu berriz ere eskuartean.

Gauzak horrela, txostenak berak pare bat ondorio azkar uzten digu irakurtzen hasi aurretik. Batetik, oraindik ezinezkoa dela geure lurraldean berezko hizkuntzan bizitzea, eta beraz euskaldunok diskriminatuak jarraitzen dugula gutxitutako hizkuntza baliatu nahi izanez gero. Bestetik, herritarrak prest daudela euskaraz bizitzeko hautuari ekiteko eta horretaz gain, hautu horretan oztopoak jartzen dizkietenean beren burua ahaldundu eta gertaera horiek salatzeko irimotasuna dutela.

Hartara, Kontseiluak duela hamazortzi urte sortutako Behatokiaren iraungitze-data, tamalez, urrun dagoela esan behar dugu.

2018ko argazkiari arretaz ikusiz gero, egia da, bai, elementu asko izan ditzakegula hizpide. Hori horrela izanik ere, honako hitzaurre hau Behatokiak erdigunean jarri dituen entitateei erreparatzeko baliatu nahi dut, udalei, hain zuzen ere.

Herritarren pertzepzioa izaten da udalak direla eguneroko bizitzan eragin gehien duten instituzioak. Horretaz gain, egia da hizkuntza-politikak aldaketak eragiteko udalak izaten direla instituzio hurbilekoenak eta lanketarako erraztenak.

Kontseiluan sorreratik izan dugu horren kontzientzia eta horrexegatik, hain zuzen ere, udaletako hizkuntza-politikekin lotutako hainbat proiektu garatu izan dugu, besteak beste, udaletako hizkuntza-politiken neurketa edota udal ordenantza eredugarriak.

Egia ere bada, Behatokiarentzat ez dela erraza udalen inguruko ondorio bateratuak ateratzea. Finean, zeinek bere ezaugarriak ditu, zeinek bere politikak ditu, zeinek bere tokiko araudia, plangintzak edo baliabide-esleipen egin du etab.

Halere, interesgarria da udalekiko harremanetan eta bertan gertatzen diren urraketak erdigunera ekartzea, lehen esan bezala, aukera handiagoak izango ditugulako udalerrri mailan aldaketak eragiteko.

Horrexegatik, hain zuzen ere, aurren Kontseiluak inoizko adostasun sozial handiena duen proposamen politikoa den Hizkuntz Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren Udal Garapena prestatzen ari da. Horri esker tokiko instituzioek zein eragileek bide-orri zehatza izango dute udaletan urrats eragingarriak egin daitezten.

Une ezin egokiagoan dator, beraz, Behatokiaren urteko txostena. Beti esan bezala, euskalgintzaren funtzioa bikoitza da, batetik, egoeraren berri eman, eta herritarrari euskarazko hautua egitera bultzatu eta babestea; eta bestetik, hizkuntza-eskubideen bermerako politika edo neurri eragingarrien proposamenak instituzioen esku uztea. Eskuartean duzun txostenaren eta Protokoloaren Udal Garapenaren bidez helburu hori beteko dugu, zalantzarik gabe.

Paul Bilbao Sarria

Hizkuntz Eskubideen Behatokiako lehendakaria

Hizkuntz Eskubideen Behatokia

Euskararen herrian euskaraz mintzatzeko, administrazioei zuzendu eta administrazioetatik zerbitzuak jasotzeko, (osasuna, hezkuntza, justizia, edo beste edozein zerbitzu), bai eta orokorrean, jendarteak eskaintzen dituen aukerak euskaraz baliatzeko eskubideak babestea da Behatokiaren xedea.

Horretarako **Euskararen Telefonoa/Akuilari** zerbitzua eskaintzen dio Hizkuntz Eskubideen Behatokiak doan euskal hiztunen komunitate osoari. Zerbitzu honen bidez Behatokiak Administrazioei, enpresei eta edozein motatako entitateei herritarrek zuzendutako kexak, zorion mezuak eta kontsultak bideratzen ditu.

Administrazio publikoen eremuan zein sektore sozioekonomikoan, euskaraz jarduteko eskubidea errespetatu ez zaienean herritarrak **Euskararen Telefonoa/Akuilariren** bidez Behatokira idatzi edota kexa bat igortzen duenean, jarraipena egin ahal izateko dossier bat ireki eta zenbaki bat egokitzen dio jasotako kasu bakoitzari. Behatokiak zerbitzua erabiltzen duten pertsonen konfidentziasuna gordetzen du baina ez du kexa anonimorik onartzen.

Horrela bada, ondorengo lerro hauetan islatuko dugun azterketa herritarrek Behatokira helarazitako gertaeretan oinarritzen da, beraiek euren egunerokoan izan dituzten bizipenak dira azterlan honen iturria eta euskal hiztunen benetako egoerara, egunerokotasunera, gerturatzen gaituzte.

“Euskararen Telefonoa/Akuilari zerbitzua eskaintzen du Behatokiak doan. Horren bidez administrazioei, enpresei eta edozein motatako entitateei herritarrek zuzendutako kexak, zorion mezuak eta kontsultak bideratzen ditu.”



AKUILARI

Herritarren jarrera akuilu

Euskararen herrian euskal hiztun gisa bizi nahi duten herritarrek euren egunerokoa baldintzaturik eta urraturik ikusten dutenean, hizkuntza dela eta bazterturik sentitzen direnean, isilik geratu eta amore eman ordez, eskubidea exijitu eta babesa bilatzen dute. Konponbidea bilatzen, egoera aldatzen ahalegintzen dira. Indar egiten dute hizkuntza-eskubideen errespetua lortzeko.

Oztopoen aurrean jarrera pertsonal aktiboa hartzeak akuilu-lana egiten du administrazioek eta entitateek askotan erakusten duten utzikeriaren aurrean. Herritarren ahaleginak inguruan hainbat neurri hartzea ahalbidetzen dute, agerian jarritz kontzienteki egindako praktikak emaitzak ematen dituela.

Euskal hiztun gisa askatasunez, normaltasunez, osotasunez eta berdintasunean bizitzeko eguneroko urrats txikiak garrantzitsuak dira, bidea pauso txikiak osatzen dutelako, horietako bakoitzak euskara erabiltzeko eta euskaraz bizitzeko aukerak zabaltzen dituelako.

369-2018

Jaurlearitzak kontratatutako enpresako medikuaren aurrean uko egin nion azterketa medikoa egiteari, gaztelaniaz egitera behartuta nengoelako. Seguru asko medikuak horren berri emango zuen eta Jaurlearitzako prebentzio Zerbitzutik deitu zidaten esanez Gipuzkoatik mediku euskaldun bat etorriko zela Lakuara, niri propio azterketa medikoa egitera. Maiatzaren 24an mediku euskalduna etorri zen, eta normal-normal egin nuen azterketa, inongo arazorik gabe. Ekainaren 5ean jaso dut medikuak sinatutako txosten medikoa, euskaraz, eskatu bezala.

697-2018

Bilboko Santa Marina ospitaleko solairu bakoitzean dauden itxaron-eremuetan bina egunkari daude. Arazoa da bi egunkari horiek Deia eta El Correo Español baino ez direla, hots, ez dagoela euskarazko egunkaririk ospitaleko eremu horietan. Euskaldunok ere ospitalera joaten garenez, euskarazko egunkariak eskura izan beharko genituzke.

Bestalde, ahozko hizkuntza ohituretan eragiteko eta hauek aldatzeko, ariketa sozial kolektiboa eta zabala egin zen 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra Euskal Herriko lurralde guztietan: Euskaraldia. **Ahobizi** (euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartu zutenak) eta **belarriprest** (euskaraz entzuteko prest zeudenak) figuren bidez, 11 egunez euskaraz bizitzeko ahalegina egin zuten milaka lagunek.

LEHEN



ALDATUA




SANTA MARINA OSPITALEA
HOSPITAL SANTA MARINA


NORK: SANTA MARINA OSPITALEKO ZUZENDARI GERENTEA

NORI: BEHATOKIA

GAIA: 697-2018 INTZIDENTZIARI ERANTZUNA



2018 OTE: 21




697-2018 gertakariari dagokionez, jakinarazi nahi dizugu zentzoko Zuzendaritzak aurrerantzean *Berria* egunkaria ere eskainiko diela pazienteei eta haien senideei, modu horretan erabilzaile guztien hizkuntza- eskubideak bermatzeko.

Agur bero bat,

Bilbo, 2018ko abenduaren 21a.

01 Osasungintza



Osasungintza

Aditu guztien esanetan kalitatezko osasun-arreta zuzenki lotuta dago arreta hori pazientearen hizkuntzan emateko gaitasunarekin. Betebarreko gaitasun bat da hizkuntza, osasun-asistentziaren osagai garrantzitsua.

Zerbitzua pazientearen egoerari, izaerari eta inguruneari egokitu behar zaizkio. Pazienteak, gaixoak, berez kontsultara daramatzen ardura, egonezina, kezka edo beldurra... handitu egiten dira profesionala ez bada gai konfiantza-giroa sortzeko, ez bada gai gaixoaren hizkuntza erabiltzeko.

Hori horrela, ahoz zein idatziz, asko dago hobetzeko osasun-asistentzia euskaraz jaso nahi duenak zerbitzu duina jasotzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, osasun-asistentzia euskaraz jasotzeko eskubidea legez aitorturik izatea eta asistentzia hori euskaraz jaso nahi duela eskaera egina izatea ez da nahikoa osasun-arreta euskaraz jasotzeko.

22-2018

Gure jaioberriari ebakuntza bat egin behar izan diote eta prozesu osoan zehar ez dugu euskaraz dakien inor ere ez ezagutu. Ez erizainik, ez medikurik, ez zirujaurik. Gure bizitzako momenturik garrantzitsuenean inor ere ez da zuzendu gure hizkuntzan. Erabat lotsagarria izan da guztia.

Osakidetzak kanpaina bat jarri zuen martxan herritarrei lehentasunezko hizkuntza aukeratzeko hautuari buruz ohartarazteko. Kanpaina horren emaitzak ezagutarazi ziren 2018an. Eraitza horien arabera, Osakidetzaren zerbitzua jaso dezaketenen %40k egin du lehentasunezko hizkuntzaren hautua, baina euskaraz komunikatu nahi dutela adierazi badute ere, Osakidetzak ez die bermatzen arreta euskaraz jasotzea.

134-2018

Sendagile euskaldun bat eskatu nuen. Aldaketa egin eta gaur, 2018-02-16an joan naiz sendagilearengana lehenengoz. Dirudienez nolabaiteko agiriren bat badu baina neri erdaraz egin dit eta esan dit ez dakiela nahikoa euskaraz atenditzeko. Berari esan diot mediku euskalduna eskatu nuela eta beste batengana nindoala. Administrariak esan dit baduela agiria eta pasa den beste mediku bati, agiria duen beste bati, alegia, galdetu dio ea berak atendituko ote ninduen euskaraz eta ezetz esan du, ez dakiela. Administrariak esan dit hizkuntza gaitasun agiria badutela baina ez dakitela gehienek.

“Pazienteak, gaixoak, berez kontsultara daramatzen ardura, egonezina, kezka edo beldurra handitu egiten dira profesionala ez bada gai konfiantza-giroa sortzeko, ez bada gai gaixoaren hizkuntza erabiltzeko.”

Izan ere, arreta-zerbitzuei lotutakoak izan dira 2018. urtean Behatokia jaso diren kezarik gehienak. Egokitu zaien familia-medikuarekin, pediatarrekin, erizainarekin euskaraz jarduteko zailtasunak izan dituztela salatu baitute herritarrek. Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Planean lehen mailako arreta gunehorietan euskaraz aritzeko aukera bermatzea lehentasuneko baldin bada ere, euskal hiztunentzako egoera normaltasunetik urrun dago oraindik.

3-2018

Goizean Osakidetzako mediku zerbitzura deitu dugu larrialdi bat zela eta harrerako pertsonak ez digu ulertu eta espainolez hitz egin behar izan dugu. Medikuari pasa dio deia eta honek ere espainolez. Esan digu Hernaniko ambulatiora joateko haurrarekin; bertan medikuak ere ez zuen ezer ulertzen eta haurrari espainolez zuzendu zaio momentu oro. Urtarrilaren 1ean gertatu zen.

Osasun-arreta euskaraz jasotzeko oztopoz gain, harrerako langileekin edota administrarekin, zuzeneko harreran nahiz telefonoz, euskaraz jarduteko zailtasunak izan dituzte zerbitzu-hartzaileek.

146-2018

Goizeko 11etan Mendaroko Osakidetzako ospitalera deitu dut informazio eske eta ez didate zerbitzua euskaraz eman, nahiz eta horrela eskatu.


Horrekin batera irudian eta komunikazioan ere, osasun etxeetan erabiltzaileei informazioa emateko testu eta ohar labur asko eta asko, gabeziak izan dituzte eta gaztelania hutsean egon direla jakinarazi diote Behatokiari.

Behar bezainbeste profesional euskaldunen faltaren adierazle dira Behatokia jasotzen diren herritarren kezak. Areago nabarmentzen da egoera hori ordezkapen edo oporraldietan. Ordezkapenetarako profesional euskaldunak jartzen ez direnean, horiek lortzeko zailtasunak dituztela argudiatzen du Osakidetzak.

58-2018

Berriatuako osasun etxean lehendik zegoen familia mediku euskaldunaren ordezkari, euskaraz ez dakien profesional bat jarri digute haren eszedentzia ordezkatzeko. Jakinarazi digutenez, ordezkapena luzerako izango da gainera. Berriatura mediku euskalduna bidaltzeko eskatzen dugu.

Medikuntza-ikasketetan, aurten ere, arazoak izan dira. Horren karira, kezak jasotzen jarraitu dugu euskaraz ikasten ari diren ikasleek ikasgai jakin batzuk ezin dituztelako egin euskaraz edo praktikaldien %90 gaztelaniaz egin behar dutelako.

 Osakidetza
Justificante de cita

Paciente

M. [REDACTED]
G. [REDACTED]

Hora de llegada: 11:56
Hora de emisión: 11:56
2018/03/07

Unidad de gestión sanitaria
Unidad de citación

Documento oficial de la OSI Ekerraldea
Enkarterri Cruces - Osakidetza

 Osakidetza

DIETA MEDITERRÁNEA
Prevención de la enfermedad
coronaria

Para: [REDACTED]

En general es una dieta basada en:
Ensaladas, aceite de oliva, Legumbres, vegetales, pollo, conejo, toda clase de pescado, pastas, arroz y frutas.

MENÚ GENERAL:

DESAYUNO
Café o té con leche descremada. Zumos. Pan tostado (mejor si es integral), con margarina, mermelada o bien queso fresco descremado, o jamón York ocasionalmente.

MEDIA MAÑANA Y MEDIA TARDE
Fruta, yogur descremado, café o té con leche descremada y zumos.

COMIDA Y CENA
Ensalada verde. Sopa de caldo de verduras, pescado o carne sin grasa, arroz o pasta. Gazpacho. Verdura hervida, aliñada con aceite. Legumbres (garbanzos, guisantes, judías, lentejas) hervidas, guisadas o saltadas. Pasta italiana (macarrones, espagueti, tallarines, etc) con salsa de tomate natural, sin muestilla y sin queso. Setas.

Pescado blanco o azul. Pollo sin piel, Conejo, Marisco con moderación. Filete de buey o ternera con moderación. Carne de cordero o lomo de cerdo sin grasa, con moderación.

POSTRE
Fruta natural. Frutos secos. Queso descremado o requesón, o yogur descremado. Sorbetes.

CONSEJOS PRÁCTICOS

- El pescado es siempre preferible a la carne
- La dieta será baja no sólo en colesterol, sino también en grasas saturadas, y rica en mono y poli-insaturadas.
- Las cantidades deben ser moderadas, teniendo en cuenta su contenido calórico con objeto de evitar la obesidad.
- Cocinar con poca sal y no añadir sal a las comidas. Evitar el salero en la mesa. Cocinar hervido, a la plancha, brasa, microondas, horno y siempre con poco aceite. Ocasionalmente fritos.
- Tomar poco alcohol, y mejor integral.
- En el caso de trastornos asociados, diabetes, gota, etc. la dieta se establecerá de una forma individual.
- El ejercicio es muy apropiado en general. Aumente gradualmente la intensidad y/o duración del ejercicio para adelgazar si usted es obeso/a.
- Si es fumador/a abandone el tabaco.

Esan dugun moduan, herritarrek badute zerbitzua euskaraz jaso nahi dutela esateko aukera. Orain Osakidetzak du lana zerbitzuan eta era guztietako harremanetan, irudian, barne-harremanetan, komunikazioan eta abar herritarren eskubideak bermatzeko.

Bestalde, kezka handia eragiten du Nafarroan osasun zerbitzuetan bizi den egoerak. Osasun-asistentzia euskaraz jasotzeko oztupoek buruhauste ugari eragiten diete bertako herritarrei; bai eta eremu publikoan euskaraz aritzeko Euskararen Legeak eskubidea aitortzen duen zonaldean ere. Behatokia iritsi diren kexak ikusita, familia-medikua, pediatra edo espezialista euskaldunak nahi duten herritarrek bizi dituzten egoerak ez dira batere osoak: gaztelania ulertzen ez duen umeak pediatra erdalduna izatea edota osasun zerbitzu bat jasotzera doazen herritarrak, atea gurutzatzen dutenetik azken agurra arte, den-dena gaztelaniaz egitera behartuak izatea.

560-2018

Atzo arratsaldean, 19:00-19:30 aldera Iruñeko San Martin osasun etxera joan nintzen alabarekin pediatriako larrialdietara. Pediatra alabari erdaraz hitz egiten hasi zen eta nik “no te va a entender” (ez dizu ulertuko). ¿“No sabes euskara”? (euskaraz ez dakizu?) galdetu nion. “Si quieres puedo hablar en francés, en inglés, en italiano, pero en euskara no” (frantsesez, ingelesez eta italieraz hitz egin dezaket, baina euskaraz ez) erantzun zidan zakar. Zur eta lur utzi ninduen bere jarrerak.

138-2018

Aurreko larunbatean Etxarri Aranzako osasun etxera joan nintzen eta bertako medikuari arazoa azaltzen hasi nintzenean (euskaraz), “En castellano, por favor” (gaztelaniaz, mesedez) erantzun zidan.



Instrucciones al Paciente

Fecha Impresión: 08/02/18

Paciente: TSI

CEPNA: CENTRO DE SALUD DE BARRAÑAN I (P)

Centro: CENTRO DE SALUD DE BARRAÑAN I (P)

Enviado por: (MED)

Nº de Colegiado: (MED)


Horario	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	24
1.3								1.3									

1.3 ML. A LAS 08:00. 1.3 ML. A LAS 16:00. 1.3 ML. A LAS 00:00 Cada día VIA ORAL.

COLECAL CIFEROL 2000 U/ML SOLUCION ORAL

Duración Tratamiento: Desde 11/2017 hasta CRÓNICO.

Fecha	11/2017	12/2017	01/2018	02/2018	03/2018	04/2018	05/2018	06/2018	07/2018	08/2018	09/2018	10/2018	11/2018	12/2018	01/2019	02/2019	03/2019	04/2019	05/2019	06/2019	07/2019	08/2019	09/2019	10/2019	11/2019	12/2019		
1 ML. A LAS 08:00 Cada día VIA ORAL.																												



Enfermería

MEDICUNTA OROKORREKO EDEZA ETXEA

Medicina General

Extracciones

INSTRUCCION PARA LA RECOGIDA DE MUESTRAS DE ORINA

LEA CUIDADAMENTE TODAS LAS INSTRUCCIONES ANTES DE COMENZAR EL PROCEDIMIENTO

1. Antes del inicio de recogida de orina y deje la tapa boca arriba en una superficie limpia, desinfectada y reservada para el paciente.
2. Coloque correctamente el tubo de recogida y cierre la tapa del tubo.
3. Siente la necesidad que siente la tapa para dejar al momento de orinar cuando sienta que introducido el tubo y cuando se le haya cerrgado (pueden sentir un dolor leve).
4. Con el tubo correctamente introducido los tubos del orinal al momento de orinar, **NO DESPLAZAR** el tubo de orina y ocomunicamente hasta que se haya finalizado.

Recuerde: **ES MUY IMPORTANTE NO ABRIR NUNCA LOS TUBOS**

5. Poner de nuevo la pegatina sobre la tapa y tirar el tubo de orina.
6. Lleve solo los tubos de orina a su Centro de salud.

Idatziko harremanei dagokienez, errezetak, tratamendu-orriak, oharrrak, errotuluak, gaixotasun bati buruzko jarraibideak eta beste hainbat idatzi gaztelania hutsez egoteagatik eta jasotzeagatik kexatu dira herritarrak.

“Kalitatezko osasun arreta zuzenki dago lotuta arreta hori pazientearen hizkuntzan emateko gaitasunarekin.”

Bien bitartean, Osasunbideako deialdietan euskararen balioa gutxiesteko trikimailuak erabili ditu Nafarroako Gobernuak. Osasunbideko deialdietan, lehiaketaldian 40 puntutik, euskarak 4'29 puntu eman beharko lituzke legeak ezarritako eremu euskaldunean, eta 2'73 puntu legeak ezarritako eremu mistoan. Hori horrela izanik, euskararik jakin gabe ere, beste merezimendu batzuk baliatuz 39 puntu lor daitezke. Hortaz, praktikan, ez da betetzen euskarari buruzko foru dekretu berriak dioena.

Nafarroako Foru Erkidegoan, indarrean den Euskararen Legea galga izaten segitzen du osasun-arretan gertatzen diren urraketa-egoerei konponbidea emateko. Izan ere, legeak ezarritako eremu ez-euskaldunean, Nafarroako Gobernuak segitu du alemana, frantsesa eta ingelesa baloratzen eta euskara jakiteari inolako merezimendurik ez esleitzen. Herritarrek zerbitzua euskaraz jasotzeko duten eskubidea ezin da bermatu horrelako neurriekin.

Zentzu honetan Arartekoak berak bi gomendio egin zizkion Nafarroako Gobernuari Osasunbideko deialdiei dagokienez; batetik, euskarak zenbat puntu ematen dituen argi adieraztea deialdietan, eta, bestetik, atzerriko hizkuntzak baloratzen badira, euskara ez dadila gutxiago baloratu.

Profesionalen gaitasun linguistikoak berebiziko garrantzia dauka herritarren hizkuntza-hautua bermatzeko eta herritarrei kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko, baina Osakidetzako hiru langiletik batek du ziurtatuta bere lanpostuari dagokion hizkuntza profila eta Osasunbidean, langile euskaldunen kopurua ez da %0,5era iristen.

Nafarroan osasun-asistentzia euskaraz jasotzeko zailtasun ugari dauden bitartean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan osasungintzarekin zerikusia duten ikasketak, horien artean erizaintzako gradua lehentasunez, euskaraz egiteko aukera aldarrikatu dute ikasleek 2018an.

Euskarazko profesionalen kopuruan gabeziak izanda, arduraz jokatu beharko lukete erakundeek, eta, ondorioz, etorkizuneko profesionalen prestakuntza zaindu.



“Osasun arloko adituen esanetan pazientea da, pertsona, da osasun-zerbitzuaren muina.”



02 Herrizaingoa eta segurtasuna



Herrizaingoa eta segurtasuna

Segurtasunaren alorrean kexa gehien eragin dituen kidegoa Ertzaintzarena izan da, baina Estatuetakoko poliziekin, foruzainekin, udaltzainekin... segurtasuneko kidego guztietako agenteekin izan dituzte zailtasunak herritarrek euskaraz jarduteko.

Dela agenteek euskaraz ez dakitelako, dela bitarteko material egokiak ez dituztelako, errepikatu egin dira herritarrek aurreko urteetan salatu dituzten gertaerak: telefonoz deitu eta erdaraz hitz egin behar izatea; hainbat polizia-etxetan zerbitzua erdaraz jasotzea, euskaraz eskatu arren, zuzeneko arreta euskaraz jasotzeko aukerarik ez izatea, errepide-kontrolatan euskaraz aritzeko oztopoak izatea...

441-2018

Donostian, Ertzaintzaren Antiguoko komisaldegian ezin izan nuen euskeraz mintzatu (ez presentzialki ezta ere telefonoz ere) esan zidatelako erderaz hitzegiteko, ez zutela euskaraz ulertzen. Bertara joan nintzenezan 3 ertzain zeuden eta inork ez zekien euskaraz. Lotsagarria! Ta inpotentzia handia!

236-2018

Arratsaldeko 20:30ean Nafarroako Puiu herriaren hasieran kontrola jarri du Guardia Zibila (Nafarroako Pedro Mariskal eta Camino Aranbero kaleen arteko bidegurutzean). Gelditu egin gaituzte eta autoan joaten ginen bost lagunon paperak gainbegiratzeko ari zirelarik, lagun horietako batekin euskaraz hitz egiten hasi naiz. Metralleta eskuan zuen Guardia Zibila bat segituan zuzendu zait: “¿Qué lengua estás hablando? No te entiendo”. Guardia Zibila horrek esan dit errespetu falta bat zela berak ulertzen ez zuen hizkuntzan aritzea: “akaso gu iraintzen ari zara edo lagunari droga leihotik behera botatzeko esaten”. Nik galdetu diot atzerritarren bat geldituz gero ea jarrera berdina ote duten (alegia, euren hizkuntzan aritzea errespetu faltatzat ote zuten) eta berak mehatxua egin dit: “Como sigas así, a lo mejor vuelves a casa con 700 euros menos en el bolsillo”.

Harritu egin naiz; ez da Guardia Zibila gelditzen nauen lehen aldia, baina sekula ez didate horrelakorik egin.

603-2018



Gaur Donostian 3 trafikoko agente desberdinekin egin dut topo eta hiruetako batek ere ez zekien euskaraz. Euskaraz egiteko eskatu eta ez zekitelako esan didate.

Ahozko arretaz gain, idatzizkoan, isun-inprimakiak gaztelaniaz jasotzeagatik, herritarrei zuzendutako abisu, errotulu eta oharrek erdaraz baino ez zabaltzeagatik, sare sozialetako mezuak gaztelaniaz besterik ez egoteagatik....

Horrekin batera, hainbatetan herritarrek erantzun desatseginak eta tratuzakarra jaso dute: kontrol batean geratu zituzten bost lagunak euren artean euskaraz ari zirelako **como sigas así a lo mejor vuelves a casa con 700 euros menos en el bolsillo** ("horrela jarraituz gero 700 euro gutxiagorekin itzuliko zara etxera") esatea Guardia Zibilak; "espainola zara, konstituzioaren aginduak bete behar dira eta nik erdaraz egiteko eskubidea dut eta zuk ulertzeko betebeharra" bezalako erantzunak ematea Ertzainak euskaraz jarduteko nahia adierazi zuen herritarri.

Segurtasun-agenteeekin izandako gertakari larrienen artean oihartzun mediatiko handia hartu zuten bi salaketa jaso genituen Behatokia 2018an: Donostian Ertzaintzari euskaraz hitz egiteko eskatzeagatik identifikatu zuten herritarrena, eta Bilboko jaietan euskaraz aritzeko eskatu ondoren, berak nahi zuen moduan erantzun ahal zuela, bere eskubidea zela esanez herritarri tonu zakarrean erantzun zion udaltzainarena.

Donostiako gertaeraren kasuan, ez zutela zuzen jokatu aitortu eta, hasiera batean, barkamena eskatu bazuten ere, isuna jarri zion Ertzaintzak herritarri handik hilabete batzuetara. Bilboko kasuan, berriz, udalaren partetik oso erantzun gogorra jaso ondoren, bi isun jarri zizkioten herritarri; bata zirkulazioari lotutako eta bestea agenteekiko errespetu faltagatik. Hona ekarri nahiko genuke herritarrek horren aurrean Behatokiari esandakoa: **Inpotentzia eta amorrua ezin kabituta geratu naiz.**



“Segurtasun kidegoetako agente guztiak elebidun izan arte euskal hiztunek euskaraz jarduteko eragozpenak izaten jarraituko dute.”



Horrelako gertaerek, eta antzekoek, erakusten dute segurtasun-kidegoetako agenteen aurrean euskaraz aritu nahi izatea eta hizkuntza-eskubideak defendatu nahi izatea ariketa arriskutsua izan daitezkeela, desobedientzia leporatzeko arriskua baitute eskubidea baliatu nahi duten herritarrek.

Bide-segurtasunaren arloan ere erdarak dira hizkuntza nagusiak: herritarrei zuzendutako idatziko oharra, kartelak, isunak, errepideetako eta kaleetako obren berri emateko seinaleetako ohar idatziak... Espainiako polizia eta defentsa ministerioaren kasuan, herritarrek betetzeko inprimakiak, egoitzetako errotuluak eta ahozko zerbitzuak erdara lehentasunezko hizkuntza dela erakusten dute.

Herritarrek salatu duten beste gertaera bat euskara hutsean idatzitako agiri ofizialak ez onartzea izan da, esaterako, NANA tramitatze eskatzen duten jaiotze-agiria. Euskara ofiziala izanik euskara hutsean egonik ere balio osoa duten agiriak dira, baina Madrilera bidali beharra aitzakia jarrita gaztelaniazko itzulpena behar dutela azaldu dute administrazioek. Hemen ere ofizialtasunak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak hankaz gora jartzen dituzte instituzioek.

Hortaz, segurtasun-kidegoekin herritarrek ez dute bermatua zerbitzua euskaraz jasotzea, gaztelania eta frantsesa dira lehentasunezko hizkuntzak eta berme juridiko osoa eskaintzen duten bakarrak.

Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko agente euskaldun eta erdaldunen arteko desoreka leundu beharra dago. Izan ere, ertzainen %46k (3.458 ertzainek) dute hizkuntza-gaitasuna egiaztatuta eta horietatik 486 dira Europako Markoaren C1. Beste guztiak maila apalagoa dute eta horrek ere baldintzatzen du zerbitzuak euskaraz eman (eta jaso) ahal izatea.

Nafarroako Foru Erkidegoan, berriz, Barneko eta Justiziako Departamentuan, Barne Saileko %0,1k du euskararen derrigorrezko ezagutza.

Behatokian jasotako gertaeren arabera, oraindik ehuneko ez-nahikoak dira herritarren eskubideak bermatzeko. Horrek segurtasun-kidegoetako lanpostuak hornitzeko deialdietan euskara jakiteari orain arte ez bezalako trataera ematea eskatzen du, euskara jakitea ezinbesteko baldintza bihurtuz.



“Hizkuntza-eskubideen bermeak segurtasun kidegoetako lanpostuak hornitzeko deialdietan euskara jakiteari orain arte ez bezalako trataera ematea eskatzen du.”



03 Justizia



Justizia

Hizkuntza-eskubideak urratu dizkietelako kekek zuzendu dizkiete herritarrek Espainiako Justizia Ministerioari, Donostiako epaitegiari, Nafarroako Justizia Auzitegiari... Zaila izaten segitzen du justiziaren alorrean euskaraz aritzea; ziurtagiriak, zitazioak eta bestelako agiriak erdara hutsez daudelako, harrerako langileak edo epaileak euskaraz ez dakitelako, etab.

Bai ahozko jardunean eta bai jardun idatzian ere, oro har, hizkuntza nagusia erdara da.

“Justizia administrazioko langileek euskaraz ez jakiteak herritarren hizkuntza-eskubideak sistematikoki urratzea dakar.”

74-2018

Justizia administrazioan sartu eta informazio-leihatilara joan eta euskaraz galdetu nuenean gestio konkretu bat ze solairutan egin zitekeen, segituan jaso nuen erantzuna gaztelaniaz eta modu txarrean:- ¿“Egun on, Apud akta atera nahi nuke eta hemen eskatzeko esan didate”.- “Pero, en representación de quién? Necesitamos el nombre” (Baina noren izenean zatoz, izena behar dugu) Quintana Anderearen izenean. ¿“Pero, para qué exactamente, con qué fecha? (Baina zertarako zehazki, zein datarekin?) Azkenean gaztelaniara pasa behar izan nuen, eta 2.solairura joan behar nuela esan zidan; azkenean, dena gaztelaniaz eta modu txarrean. Esandako lekura igo, “JUZGADO DE INSTRUCCION N° 2” eta behar nuena eskatu, euskaraz, eta nahiz eta oraingo honetan, edukazioz erantzun, dena, erantzun guztiak, dena gaztelaniaz. Azkenean, gaztelaniara pasa behar izan nuen. Esperientzia tristea, ezin izan baitut nire herrian euskaraz hitz egin Justizia Administrazioa gestioa batzuk egitera joan naizenean.



Justizia administrazioko langileek euskaraz ez jakiteak herritarren hizkuntza-eskubideak sistematikoki urratzea dakar. Eta beti diogun bezala, hizkuntza-eskubideez gain, oinarrizko beste eskubide batzuk ere urratzen dira, besteak beste, defentsa-eskubidea edota babes judizial eragingarrirakoa.

Justiziaren eremua beltzune agertu da Espainiako estatuak Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna berretsi zuenetik. Adituen Batzordeak zein Ministroen Batzordeak gomendio zuzen eta zehatzak egin arren, ez ditu konpromisoak betetzen.

Itunaren 9. Artikuluaren arabera Estatuak interesatuei prozedura penal eta zibiletan euskara erabili ahal izatea bermatzeko konpromisoa hartu bazuen ere, berez Estatuan dagoen Legeriak, hots Botere Judizialari buruzko 6/1985 Lege Organikoak, zehazten du prozedurak zein hizkuntzatan gauzatuko diren:

231.artikulua:

Jarduteka judizial orotan, epaile, magistratu, fiskal, idazkari eta epaitegietako gainerako funtzionarioek Estatuko hizkuntza ofiziala, hots, gaztelania erabiliko dute.

Epaile, magistratu, fiskal, idazkari eta epaitegietako gainerako funtzionarioek Autonomia Erkidegoetako berezko hizkuntza ofizialak ere erabili ahal izango dituzte, beti ere, aldeetako bakar bat ere aurka agertuko ez balitz, indefentsioa alegatuz hizkuntza ez ezagutzeagatik.

Horrela, parteetako batek hizkuntza ez jakitea alegatzea aski da, prozedura judizialean berezko hizkuntza ofiziala itzultzaile gabe ezin erabiltzeko. Hortaz, Espainiako estatuak oztopo juridiko gaindiezina dauka konpromisoak betetzeko eta arazoez bere horretan jarraitzen dute justizia administrazioan.



“Espainiako estatuak oztopo juridiko gaindiezina dauka Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituneko konpromisoak betetzeko eta arazoez bere horretan jarraitzen dute.”



04 Hezkuntza



Hezkuntza

Hasi haur eskoletatik eta goi mailako ikasketetaraino urratzen da hezkuntza euskaraz jasotzeko eskubidea.

2018 urtean hezkuntzan bereziki euskal hiztunen eskubideek urraketa nabarmenak izan dituzte Ipar Euskal Herrian. Ikasleek Brebeta eta Baxoa euskaraz pasatzeko oztopoak, Ikastoletan lanpostuen murrizketak, hezkuntza publikoko sisteman euskarazko irakaskuntzaren aukerak mehatxupean postuen murrizketak direla edo postu berriak irekitzea eragotziz.

Nafarroako Foru Erkidegoan haur eskoletan euskarazko murgiltze ereduan sartzeko aukerarik gabe gelditzen dira hainbat haur, eskaintzen den plaza kopurua motz gelditzen baita oraindik.

306-2018

Antsoaingo Udalak ez du D eredua eskaintzen Udal Haur Eskolan eta gurasoek Iruñeko Udalera jo dute matrikula egitera. Antsoaingo Udalak hitzarmenik ez duenez Iruñeko Udalarekin, gurasoek beren gain hartu beharko dute Iruñeko Udalak Iruñetik kanpo erroldatuta dauden haurrei tarifan aplikatzen dien gehikuntza.

Derrigorrezko lehen hezkuntzan, legeak ezarritako eremu ez-euskaldunean gutxieneko ratio bat lortu behar da euskarazko lerroa abiatzeko, eta horrek askotan ezinezko bihurtzen du hala nahi dutenei euskarazko eredia bermatzea.

Goi mailako ikasketetan magisteritza da Nafarroako Unibertsitate Publikoan osorik euskaraz egin daitekeen ikasketa bakarra. Gabezia horri konponbidea emateko ez da urrats esanguratsurik egin 2018an. Ikasketak euskaraz egin nahiko lituzketen ikasleek gaztelaniaz ikasi behar izaten dituzte kreditu gehienak, edo Euskal Herriko Unibertsitatera jo.

Egoera horren aurrean erizaintzako ikasketak euskaraz bermatzeko neurriak eskatzeko ekimenak jarraipena izan du 2018an. Horren karira, Arartekoak berak iradoki zuen komenigarria litzatekeela euskarazko eskolak ematea hala nahi duten ikasleentzat. Hezkuntza departamentuari eta unibertsitate publikoari begirako gomendioa egin zuen Arartekoak.

“Hasi haur eskoletatik eta goi mailako ikasketetaraino urratzen da hezkuntza euskaraz jasotzeko eskubidea. Bereziki euskal hiztunen eskubideek urraketa nabarmenak izan dituzte Ipar Euskal Herrian.”



eskubidea dute.

Erakundeak jabetzen da aztergai dugunaren moduko gaitetan, planifikaziorako eta autoantolatetarako ahalmenekin bat egiten dutenetan, Nafarroako Unibertsitate Publikoak egindako txostenean azaltzen dituen alderdien modukoek eragin dezaketela, hala nola giza ballabide egokiak edukitzearekin lotutakoek, baina pentsatzen du eskumena duen administrazioak neurriak har ditzakeela hasierako zailtasunei aurre egiteko.

7. Horrenbestez, eta uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 34.1. artikulua aitortzen dizkion eskumenekin bat etorriz, Nafarroako Arartekoak komenigarritzat jo du:

Nafarroako Unibertsitate Publikoari eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailari iradokitzea neurriak hartzeko unibertsitate horretan erizaintzako gradua euskaraz ezarri ahal izateko, ikasketak aipatutako hizkuntzan egin nahi dituzten ikasleek hala egin ahal izan dezaten.

Lege-agindu horretan xedatzen denez, ukitutako administrazio publikoak arartekoaren erabakia onartzen ez badu, erakunde honek erabaki dezake gai hori 2018. urteari dagokion urteko txostenean sartzea eta Nafarroako Parlamentuan azaltzea, jarrera hori izan duen administrazio publikoa berriaz aipatuz, baldin eta

Universidad Pública de Navarra en su informe, relacionados con la disponibilidad de recursos personales adecuados, pero considera que pueden adoptarse medidas o alternativas por parte de la Administración competente para superar tales dificultades iniciales.

7. En consecuencia, y de conformidad con las facultades que le atribuye el artículo 34.1 de la Ley Foral 4/2000, de 3 de julio, la institución del Defensor del Pueblo de Navarra ha estimado conveniente:

Sugerir a la Universidad Pública de Navarra y al Departamento de Educación del Gobierno de Navarra que adopten medidas para hacer posible la implantación del Grado de Enfermería en euskera en dicha Universidad, a fin de que aquellos alumnos y alumnas que deseen cursar los estudios en la citada lengua puedan hacerlo.

De conformidad con el artículo 34.2 de la Ley Foral 4/2000, de 3 de julio, del Defensor del Pueblo de la Comunidad Foral de Navarra, procede que la Universidad Pública de Navarra y el Departamento de Educación informen, como es preceptivo, en el plazo máximo de dos meses, si aceptan esta resolución, y, en su caso, las medidas adoptadas para su cumplimiento.

De acuerdo con lo establecido en dicho precepto legal, la no aceptación de la resolución podrá determinar la inclusión del caso en el Informe anual correspondiente al año 2018 que se exponga al Parlamento de Navarra

Euskal Autonomia Erkidegoan 2017an abiatu zen hezkuntza lege berri bat sortzeko prozesua. Eztabaidarako bost ardatzen artean hizkuntzarena zegoen. Legea egiteko oinarritzko dokumentua onartu zuen Jaurilaritzak 2018an, baina ez da beste aurrerabiderik egin. Derrigorrezko hezkuntzan oraindik indarrean jarraitzen du ikasleak hizkuntzaren arabera banatzen eta sailkatzen dituen sistemak. Hainbat azterketek agerian utzi duten moduan, eredu sistemak ez du bermatzen derrigorrezko etapa amaitutakoan euskararen ezagutza egokia eta ez du ikasle guztiek gaitasun berbera izateko eskubidea bermatzen.

Arlo akademikotik kanpo, hezkuntzaren eremuko bestelako jardueretan ere badago zer hobetu hizkuntza-eskubideen langintzan Behatokira iritsitako kexek erakusten dutenez: EAEn EGA azterketarako deialdiko egutegia gaztelania hutsean; Hezkuntza Saitetik jasotako eposta erdaraz baino ez; Bizkaiko Delejaritzara deitu eta ezin zerbitzua euskaraz jaso, EHUko kanpusetako idazkaritzetan, aurrez aurre nahiz telefonoz, arreta ezin euskaraz jaso; Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza departamentutik ziurtagiria gaztelania hutsean jaso; Iruñerriko D ereduko ikastetxe batetik **Winter Time** 2018 programari buruzko informazioa gaztelania hutsean bidali gurasoei...

Ikus daitekeenez hezkuntzan hiru erronka nagusi dago. Batetik, derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan ikasleek euskara-gaitasun egokia erdiesteko ikasteredu orokortua abian jartzea; unibertsitate-ikasketetan euskarazko eskaintza bermatzea, eta, azkenik, hezkuntza-administrazioarekiko harremanak euskaraz izango direla segurtatzea.

“Arlo akademikotik kanpo hezkuntza administrazioarekiko harremanetan ere badago zer hobetu hizkuntza-eskubideen langintzan.”



Euskararen Gaitasun Agria

EGA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA

EGA

CALENDARIO DE EXAMENES - 2018

Este calendario es provisional. El candidato deberá comprobar, con anterioridad al examen, los posibles cambios en las fechas correspondientes.

Primera convocatoria:

- Plazo de matrícula: 8 al 22 de enero (hasta las 12 del mediodía).
- Lista provisional de admitidos: 1 de febrero.
- Reclamaciones: hasta el 15 de febrero.
- Lista definitiva de admitidos: 22 de febrero.
- Prueba inicial: 24 de febrero.
- Resultados provisionales: 7 de marzo.
- Reclamaciones: hasta el 14 de marzo.
- Resultados definitivos: 16 de marzo.
- Prueba escrita: 17 de marzo.
- Resultados provisionales: 10 de mayo.
- Reclamaciones: hasta el 17 de mayo.
- Prueba oral*: 25 y 26 de mayo
- Resultados provisionales: 1 y 2 de junio
- Reclamaciones: 8 de junio.
- Resultados definitivos: Hasta el 15 de junio.
- Resultados finales: 29 de junio.

* Atendiendo a los datos de matrícula, el Departamento de Educación decidirá si las pruebas se realizan en uno o más días.

Donostia - San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ

ALTE

hartzainak ni

espanera* > euskara* itzuli mezua

Hola,

En contestación a tu petición de esta mañana te comento que todo aquel dato que no figura en la web, además, del Departamento no se facilita <https://www.euskojard.com/gobierno-vasco/ordinales-reclamacion/>

Aun así, y por si te interesan datos a nivel municipal, en el siguiente correo puedes hacer una nueva solicitud.

un saludo

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

05 Administrazio jarduera orokorrak



Administrazio jarduera orokorrak




Frantziako zein Espainiako Estatuetakoa administrazioek eskaintzen dituzten mota guztietako zerbitzuak euskaraz jaso ezina ohiko gertaera izan da 2018an jasotako kekek agerian jartzen dutenez: finantza publikoetako sailarekin, Gizarte Segurantzza, posta eta garraio zerbitzuetan, ogasunean...

11-2018

Deustuko postetxera joan eta langilea erdalduna zen, ez zigun euskaraz egiteko aukerarik eskaini eta emandako inprimakia gaztelaniaz zegoen.

Ahozko arretan bezala idatzizkoan ere gabeziak daude: jendeari zuzendutako informazio idatzia (argibideak, esku-orriak, kartelak, errotuluak, sms-ak) erdara hutsean izatea, jendeak betetzeko inprimakiak edota gutunak euskaraz ez eskaintzea edo ez edukitzea, webgunean "euskara" sakatu eta dena erdara hutsean bistaratzea...

Gaztelaniazko itzulpenez lagunduta ez badoaz, euskara hutsez idatzitako agiri ofizialak ez onartzea izan da errepikatu den beste keketako bat. Horren ondorioz, ofizialtasunak bere dakartzan ondorio juridikoei muzin egiten diote administrazioek behin eta berriro.



viernes, 02 de marzo de 2018

A la atención de los propietarios de: ALEGI, 10 (AULESTI)

El funcionario de Correos, encargado del reparto de esa comunidad, encuentra ausentemente el portal cerrado, y ningún vecino que pueda abrirle la puerta, siendo materialmente imposible depositar la correspondencia dada en los casilleros domiciliarios. Como quiera que no podemos contactar con ningún propietario, le comunico que hasta que nos proponen una solución, la correspondencia permanecerá en la oficina de Correos de GERNIKA, en horario de 9:30 a 14:30 y de 16:30 a 20:00 horas de lunes a viernes y de 9:30 a 13 horas los sábados, pudiendo pasar a retirarla cuando lo crean conveniente y dentro de los plazos previstos antes de su devolución, (quince días).

Jefe de Distribución



37-2018

Iruñeko DNia tramitatzeke bulegoan ez didate euskara hutsean idatzitako jaiotze-agiria onartu. Elebiko agiria aurkeztu ezean ezin izango diodala alabari pasaportea egin esan didate.

Askotan esan izan dugu, langileen hizkuntza-gaitasun ezak eragin zuzena du herritarrei zerbitzua euskaraz ezin ematearekin. Bien bitartean Lan Eskaintza Publikoa deialdia zabaldu zuen Espainiako Gobernuak 2018an. Euskal Autonomia Erkidegoan 340 plaza esleitu ziren administrazioan lan egiteko eta ez zen euskara eskakizun gisa aintzat hartu. Espainiako EAEko ordezkariak eman zuen neurri horren zergatia: “Madrildik iritsitako lan eskaintza denez, ez ditugu autonomia erkidegoetako hizkuntzak eskatu”. Horrela, herritarren hizkuntza-eskubideen urraketak betikotzeko erabakiak hartzen jarraitu du Espainiako Estatuko Administrazioak 2018. urtean.

Nafarroako Gobernuaren Administrazioan sartzeko lan deialdietan, berriz, 2015-2019ko agintaldia amaitzen ari da. Administrazioa sartzeko lan deialdietan, euskararen balorazioari dagokionez, aldatetaren aldeko Nafarroako Gobernuaren bilana egiteko tenorea da. Hezkuntzatik kanpoko lanpostuen euskarazko profila %1ak baino gutxiagok badu ere, euskaraz jakitea ia ez du eskatu. Lan deialdietan sistematikoki ez da puntuatu euskara eta “eremu ez euskalduna” deiturikoan alemana, frantsesa eta ingelesa baloratu dira baina euskara ez.

Zentzu honetan Nafarroako Arartekoak bi gomendio egin zizkion Nafarroako Gobernuari: Batetik, legeak ezarritako eremu ez-euskaldunean kokatutako lanpostuei dagokionez, berariaz adieraz dezala euskaraz jakiteak zenbat puntu balio duen. Eta, bestetik, atzerriko hizkuntzen ezaguera aintzat hartzen bada, euskara jakiteagatik ematen den puntu-kopurua ez dadila atzerriko hizkuntza horiei emandakoaren azpitik egon. Tamalez, Arartekoak egindako gomendioak ez ditu beti bete Nafarroako Gobernuak.



Idatzizkoari dagokionez, euskarri mota guztietan aurkituko ditugu gabeziak: gutunak, sms mezuak, mezu elektronikoak, ohar idatziak, herritarrek betetzeko inprimakiak...

Leku askotan dauden kartel, errotulu eta abarrak oso inportanteak dira, uneoro begietatik sartzan zaigunak hizkuntzaren ezagutzan eta erabileran eragina duelako. Funtzio informatiboa betetzeaz gain, funtzio sinbolikoa ere betetzen dute. Lehen hitza euskaraz egiteko erosoago ekingo baitiogu euskarazko hizkuntza-paisaia duen leku batean. Bada, egoitza publikoetan maiz aurkitzen dugun paisaia ez da horretarako lagungarri.

servicio Navarra de Autonomía y Desarrollo
 y los Programas
 de Atención Administrativa y Gestión
 de Recursos Humanos
 Calle de la Libertad
 número 1
 31007 Tudela (La Rioja) ESPAÑA
 t. 948 42 12 08
 fax. 948 42 12 09
 info@navarra.es

Navarroako Gobernua
 Gobierno de Navarra
 Educación, Universidades y Empleo
 Departamento de Derechos Sociales

Nº EXPEDIENTE									
AYUDA ECONOMICA POR EXCEDENCIA									
DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE									
N.I.F.		Primer Apellido		Segundo Apellido		Nombre			
Domicilio (calle, plaza, etc.)			Puerta bloque	Escalera	Localidad	C Postal			
Estado Civil	Sexo	Fecha de Nacimiento		Nacionalidad		Telefono			
	<input type="checkbox"/> Hombre <input type="checkbox"/> Mujer	Día	Mes	Año	E mail	2º			
CONYUGUE/PAREJA									
N.I.F.		Primer Apellido		Segundo Apellido		Nombre			
Estado Civil	Sexo	Fecha de Nacimiento		Nacionalidad		Telefono			
	<input type="checkbox"/> Hombre <input type="checkbox"/> Mujer	Día	Mes	Año	E mail	2º			
HIJAS/OS									
APellidos y Nombres			DNI o NIE		FECHA NACIMIENTO		HABLA		



Atal honetan on-line administrazioei buruzko aipamena egin beharra ere ikusten dugu, gabezia handiak daudelako administrazioek eskaintzen dituzten on-line prozeduretan.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, azpimarratu nahiko genuke enplegu-zerbitzuetan, baliabide informatikoak euskaraz erabiltzeko orduan, garraio publikoa erabiltzeko unean, informazio kanpainetako euskarrietan... antzeman dituela hutsuneak herritarrek. Bai, euskara bazter utzi delako edo euskarazko testuen kalitatearen ondorioz.

239-2018

Durangoko Euskotreneko makinetan euskara aukeratu eta akatsez betetako eta erdarazko testuak irakurri ditut.

804-2018

012 telefonora deitu dugu arazo bat izan dugulako Jaurlaritzaren dirulaguntza bat igotzerakoan. Ibermatiko langile batek bikain hartu gaitu euskaraz baina aplikazioa, haiek gure ordenagailuarekin konektatzeko gaztelera hutsean zegoen: "Unirse a una sesión".

Nafarroako zati batean eta Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala euskara eta gaztelania diren arren, gaztelania da balio osoa duen hizkuntza Hego Euskal Herrian administrazio publikoen jardunean.

Ipar Euskal Herrian Euskal Hirigune Elkargoak koadro bat eskaintzen du hizkuntza politika garatzeko. **Euskara Jalgi Hadi Plazara Euskal Hirigune Elkargoaren Euskararen aldeko hizkuntza politika** dokumentuan arlo ezberdinetan euskara garatzeko helburuak eta bide orria finkatzen du. Dokumentu hau osatzeko euskararen arloan lanean ari diren eragileekin kontatu da eta emaitza anbiziotsua izan da.

2018 urte osoa zehar dokumentua oinarri hartuta egituraketa lanetan ari izan da Euskal Elkargoa. Izan ere herritarra elkargoko ordezkarien borondatearen emaitzak ikusten hasi da oraindik emaitza argirik ikusten ez bada ere.

Ezin daiteke, aldiz, gauza bera esan Estatuaren jarreraz. Ipar Euskal Herrian ofizialtasun aitortzarik batere gabe administrazioan euskaraz aritzeko aukerak are urriagoak dira. 2018an ere aitortza ofizial ezak eragin zuzen izan du herritarrek euskara erabiltzeko eskubidearen urraketetan.

Gauzak horrela, Euskal Herriko administrazioetan euskarak, bertako hizkuntza izan arren, bigarren mailako hizkuntzaren trataera du.

“Esan daiteke, praktikan ofizialtasun osorik ez duela euskarak administrazioaren jardunean, ez zerbitzu hizkuntza modura, ez lan hizkuntza modura.”



The image shows a digital interface for the Navarre government. At the top, there's a navigation bar with 'navarra.es' and various menu items. The main content area features a headline: 'Ayudas a personas trabajadoras en excedencia para el cuidado de familiares 2018'. Below this, there's a 'Plazo' section with bullet points, a 'Dirigido a' section, and a 'Mas informacion' link. A 'Documentacion' section is also visible. Below the main content, there's a banner for 'Nuevo acceso desde su ordenador' with the logo of the 'TESORERIA GENERAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL' and 'Dirección Provincial de Navarra'. Underneath the banner is a screenshot of the 'Sede Electrónica' portal, showing a search bar, navigation tabs for 'Ciudadanos', 'Empresas', and 'Administraciones y Mutuas', and a 'Ciudadanos' section with an 'Entrar' button. At the bottom, there's a 'Servicios y trámites' section with icons for 'Tabla de anuncios', 'Notificaciones telemáticas', 'Mis expedientes administrativos', 'C@ve, Identidad electrónica', and 'Registro electrónico de apoderamientos'. The text 'Fácil de usar!' is written at the bottom right of the banner area.

06 Udalak eta Herriko Etxeak



Testuinguru horretan, 2018an hainbat lan-deialdi egin dira, hutsik dauden lanpostuak bete, edo zerbitzuetan sortzen diren beharrei erantzuteko lan-poltsak osatzeko. Lanpostu publikoen horniketan, euskara galdegin gabe edo behar bezala puntuatu gabe jokatu dute hainbat udalek: Donostiako Udalak administrari, lanposturako euskara ez balioetsi baina ingelesa bai; Iruñeko Udalak goi mailako teknikarietako zerrenda osatzeko frantsesa eta ingelesa eskatu, baina euskara ez: Esteribarko administrari-ofizial izateko oposizio-lehiaketan euskararen ezagutza ez baloratu.... Izan ere, lanpostu publikoen horniketan, euskara galdegin gabe, nekez bermatuko dira euskal hiztunen eskubideak administrazioekiko harremanetan zein lan jarduna garatzeko orduan.

Horren aurrean Nafarroako Arartekoak gomendioa/iradokizuna egin dio hainbat udali, besteak beste, Eugiko Kontzejuari Eguesibarreko, Burlatako, Altsasuko eta Tuterako udalei.

Tuterako alkateak, hasiera batean, gomendio ez zuela beteko adierazi bazuen ere, euskara aintzat hartzea konprometitu zen.


Ipar Euskal Herrian euskarak lege aitortzarik gabe jarraitzen badu ere, herriko etxeek badute gaitasuna hizkuntza-politika garatzeko udal eremuan ahozko eta idatzizko erabilera sustatzeari begira. Halere, sustapen hori oraindik ere borondatearen baitan dago.

Horrela, hizkuntzari dagokionez ondoko erabakia hartu zuen Uztaritzeko Herriko Etxeak 2014an: "Euskara hizkuntza ofiziala da Uztaritzen, frantsesaren hein berean". Baina bi hizkuntzak maila berean ez daudela erakusten duen gertaera izan da 2018an: Uztaritzeko Herriko Etxeko bilkuran hautetsi batek euskara hutsean esandakoak ez ziren aktan jaso ez zituelako frantsesera itzuli.

Donibane Lohizuneko Herriko Etxearen kasuan, haren erakusleho den webgunean ez da euskarari buruzko aipamenik, nahiz eta webguneak ingeles eta gaztelaniako bertsioak eduki. Horren parean, Baiona edo Miarritzeko Herriko Etxeek euskara Batzorde bat sortu dute eta eragileekin adostutako hizkuntza politikaren segimendua egiten dute. Desoreka handiak badira Herriko Etxe batetik bestera.

Herriko Etxeek ez dute jarraibide amankomunik eta ondorioz Herriko Etxe bakoitzean oso egoera ezberdinak aurkitzen ditugu. Desoreka handiak badira Herriko Etxe batetik bestera.

“Lanpostu publikoen horniketan, euskara galdegin gabe, nekez bermatuko dira euskal hiztunen eskubideak administrazioekiko harremanetan zein lan jarduna garatzeko orduan.”



07 Lan mundua



Lan mundua

Lan munduan jarduera profesionalerako erabilitako hizkuntzak gaztelania eta frantsesa dira nagusiki. Horrela, erdarak dira nagusi lanleku gehienetan. Instituzio publikoetan zein enpresa munduan langile euskaldunak zailtasunak ditu bere lan-jarduna euskaraz garatzeko: beharginek erabiltzen dituzten lan tresnak erdara hutsean daude, euskara gaitasuna ez da formazio-plan orokorretan txertatzen, zuzendaritzetan edota arduetan euskarak leku gutxi eduki ohi du, bai eta hizkuntza idatzi gisa ere....

64-2018

Nire lantokian, suhiltzaile parkean, eremu euskaldunean kokatuta dagoen parkean, argibideak emateko karteldegia osoa erdara hutsean dago.

15-2018

Osakidetzako langileok erabiltzen dugun E-OSABIDE aplikazio informatikoan, aplikazioaren erabilera hizkuntza gisa euskara hautatuz gero, aplikazioa ez dabil. Gaztelera hautatu behar da nahitaez programa hau erabili ahal izateko. Aspalditik du akats hau programa honek eta oraindik berdin gaude. Langileon eskubideak urratuz lana euskaraz egin ahal izatea eragozten ari zaigu.

472-2018

2018ko apirilaren 23an Lanbidek bertako langileoi barne albiste bidez komunikatu zigun Dirusarrerak Bermatzeko Errentaren inguruko inprimakiak aldatuko zituztela. Berriak gaztelera hutsean egin zituztela eta horiek bidaliko zituztela lehenengo bulegoetara, zenbait bulego inprimakirik gabe zeudelako eta ez zutelako berriak euskaratzeko astirik izan. Denbora pasa da berriak bidali zizkigunetik, gaztelera hutsean, baina euskarazkoak oraindik ez dizkigute bidali.

“Lan munduan jarduera profesionalerako erabilitako hizkuntzak gaztelania eta frantsesa dira nagusiki.”



DBE IN-PRIMARKI BERRIAK / Nuevos impresos de DICI

Inprimaki berriak 2 berritidan izanago dituzte:

- Gaztelanazko berritokiak hain helduko zaizue lehenaldiz.
- Euskarazko berritokiak inprimategian ari da prestatzen, baina oraindik ez dago prest. Bulego batak inprimakirik gabe daudenez, ezin dugu itarazi berritoki hain bidaltzeko moduan egon arte. Presta daudenean bidalko dizkizuegu.

Berritoki berritoki horien, berritoki inprimaki gutxiak orri bakarra dute. Gainera, 2 dokumentu berritoki sartu dira:

- ERE-DBE-027: logela alokatzeko kontratua
- ERE-DBE-028: alegazioak


Erabiltzaileak eta tramitazioak aldatuta horretan pozik egotea espero dugu.

Lan jarduerari lotutako gestio pertsonalizatuekin zerikusia duten tramiteak egiteko edota formazioa jasotzeko orduan ere, Estatuko administrazioekin zein lurraldeetakoekin, zailtasunak aurkitzen ditu euskal hiztunak horiek euskaraz egin ahal izateko.



541-2018

Irungo INSSen bulegora joan naiz kontsulta bat egitera. Erantzuna eman behar zidan funtzionarioari euskaraz egin, eta gaztelaniaz egiteko esan dit. Ea inor ez zegoen harrera euskaraz egingo zidanik, eta ezetz esan dit. Nahitaez gaztelaniara jo behar izan dut.


Lan munduan urrun dago euskaratik eta aurrerapauso asko egin beharko dira euskaraz lan egiteko aukerak areagotzeko.



“Lan munduan euskara integratzeko eta erabilera areagotzeko beharra agerikoa da.”



08 Kultura Aisialdia Kirola




Kultura, aisia, kirola

Eremu formaletik kanpo aisialdiaz eta kultura-adierazpide ezberdinez gozatzeko aukera mugatua dugu euskaldunok.

Erakunde publikoek antolatutako ekimenetan, edo haien laguntzarekin antolatzen direnetan, zein ekimen pribatukoetan, guztietan aurkitu dituzte hutsuneak herritarrak: Bizkaiko Dantzari Eguna (kartelak erdaraz baino ez, Bilbo), ZINEBI (kartela eta filmen azpigituluak gaztelania hutsean), MTV Music Ewk Durangon (kartelak gaztelania hutsean), Altzako (Donostia) kultur etxearen programazioan helduentzako euskarazko aukera gutxi, San Telmo Museoa Vandana Shivanaren hitzaldia eta zinegotziaren aurkezpena gaztelania hutsean, Live Donostia kanpaina gaztelania hutsean, Feria Outlet Guipuzcoa (Irun), Flamenco/a on fire (Iruñea), Gaiarre Antzokiko programazioa eta hizkuntza-paisaia, Baionako Herriko Etxearen programazioa eta kultur gida frantses hutsean, Donibane Lohizuneko turismo web atariak euskarazko informaziorik ez edo Gabonetan Herriko Etxe honetako Olentzeroren munduan euskaldunik ez egotea...

Egitasmoei ingelesezko izena jartzeko ohitura hedatzen ari da, kasu askotan, gainera, erakunde publikoetatik sustatuko proiektuak edo horien laguntza jasotzen duten egitasmoak dira: **Urdaibai Bird Center**, **Gernika-Bilbao Running**, etab.

“Egitasmoei ingelesezko izena jartzeko ohitura hedatzen ari da, kasu askotan, gainera, erakunde publikoetatik sustatutako proiektuak dira.”



Bisita gidatuak euskaraz egin ahal izateko orduan, edota kultura etxe edo guneetan euskarazko arreta jasotzean ere, zail egin zaio hainbatetan hiztun euskaldunari: Azpeitiko Tren Museoa, Oteiza eta San Telmo Museoa... Administrazioak berak antolatutako kultur lehiaketetara aurkezteko egin beharreko tramiteak egiteko ere antzeko oztopoak izaten dira, esaterako, Bizkaiko Foru Aldundiaren **Bizkaidatz Literatura lehiaketa**, Nafarroako Gobernuaren **Generazinema** laguntza deialdia...

Nahiz eta erakunde publikoek diruz lagundutako edo baimendutako jarduerak izan, publizitateak, panelek, oharrek, kartekek edo webguneek ez dute maiz bertako hizkuntza kontuan hartzen.

Euskara eskolatik atera eta aisialdira eramateko hainbat elkarte lanean ari diren bitartean, erakunde publikoek babestutako eta lagundutako hainbat jardueretan ez dira euskal hiztunak kontuan hartzen, umeei eta gazteei bideratutako aisialdirako jarduerak usu ez baitira euskaraz izaten. 3.4.irudiak

Gero eta garrantzia handiago ematen zaion kirol jardueretan ere, haur eta gazteek oztopoak aurkitu dituzte euskaraz jarduteko. Zenbaitetan matrikula egiteko garaian ekintzaren hizkuntza euskara aukeratuta ere, taldeak bateratu dituztelako edo beste arrazoiren bat dela medio, erdara nagusitzen da jarduerotan.

456-2018

Aurtengo udan gure alaba (7 urte) Donostia Kirolak antolatutako ekintzetako batera apuntatu dugu: Kirol-aniztasuna hondartzan, CD Fortuna KEn. Matrikula egiterako garaian, ekintzaren hizkuntza euskara aukeratu genuen.

Taldeak bateratu dituzte eta ez dago soilik euskaraz. Beraz, nahiz eta zenbait monitoren euskaraz hitz egin, orokorrean gaztelaniaz hitz egiten diete. Hori ez da guri eskaini ziztaiguna: guk euskara aukeratu genuen.

Uretan dauden bitartean ezin izan ditut entzun, noski, baina hondartzan daudenean bai. Gaztelania da nagusi. Etxera joan baino lehen zain dauden bitartean (30 minutu) egiten duten jolasa, "pañuelito" ere erabat gaztekeraz.

Agian haurren batek edo ulertuko ez duelakoan... edota monitoren ez duelako behar besteko gaitasunik euskaraz jarduteko...berdin dio.

Guk kirol ekintza euskaraz egiteko eskubidea eta aukera izan arren, garbi dago ez dela bermatu. Egoera hau salatu nahi dugu, berriro ere gure hizkuntza erabiltzeko eskubidea urratu baita.



Nahiz eta euskara ikasteko, sustatzeko eta erabilera indartzeko kirola tresna ezin hobea izan litekeen, tamalez, behar bezala landu gabeko esparrua da.

Atzerapausoren bat ere salatu dute herritarrek: Gasteizko Udalak gizarte-etxeetan aurreko urtetan euskaraz eskaintzen zituen jarduerak gaztelaniaz eskaini ditu 2018an.

Horrekin batera, esan behar dugu administrazioek kanpoko enpresen bidez ematen dituzten zerbitzuetan ohikoa izaten dela hizkuntza-irizpideak ez jartzea, edota jarrira ere, haiek ez betearaztea.

Zenbaitetan izenetik bertatik hasi (Itzulia Basque Country) eta zeharkatzen dituen herrien grafia eta izendapen ofizialekiko ez dute errespeturik erakutsi (Elgueta, Igueldo, Vitoria).

Hedabideen eremuan nabarmentzekoa da EITBk 2018an jasotako keak. Dela euskarako telebista zein irratan gaztelaniazko adierazpenak zabaltzeagatik, erdarazko publizitatea txertatzeagatik edo dela erabilitako euskararen kalitateagatik, kexu azaldu dira euskal hiztunak.

Kultura-jarduera eta aisialdira bideratzen diren hainbat eta hainbat ekimenetan euskara maiz baztertuta gelditzen da. Kulturaz eta, oro har, aisialdiaz, gozatze eskaintza orekatua izatetik oso urrun dago oraindik ere. Garatzen den eskaintzan erdarak nagusitzen dira eta euskara, askotan, apaingarri gisa azaltzen da.

“Kulturaz eta, oro har, aisialdiaz gozatze eskaintza orekatua izatetik oso urrun dago oraindik ere.”



LIGA NACIONAL KARATE
JUNIOR – SUB21

2019



Miembro del Comité Olímpico Español

**CAMPUS DE FÚTBOL FEMENINO
S.D. ALSASUA K.E.**

Edades: Nacidas en 2006, 2007, 2008, 2009, 2010

Fechas: Del 27 Agosto al 31 Agosto Precio inscripción: 35€/jugadora

Horario: de 10.00h a 14.00h Lugar: Dantzaleku (Vizcaya)

Si tienes 12 años o menos y te gusta el fútbol, ¡me lo dices y apuntate!

Forma de contacto para información y/o inscripción:
Tfno: 627351509 Alfonso Castellano – Coordinador de fútbol S.D. Alsasua (vía llamada o whatsapp)
Email: sdalsasua@gmail.com

09 Kontsumo zerbitzuak eta interes orokorreko zerbitzuak



Kontsumo zerbitzuak eta interes orokorreko zerbitzuak




Supermerkatu batera joan eta produktu baten osagaiak begiratzera, tamalez, ez da batere ohikoa osagaiak irakurtzea. Aldiz, zeinen ohikoa den ingredientes edo ingredients ikustea.

Espainiako zein Frantziako Estatueta gaztelaniaren eta frantsesaren presentzia ziurtatzen eta bermatzen bideratzen dira araubideak. Horrela, Euskal Herrian ezin da ezer saldu ez bada bermatzen gaztelania edo frantsesaren presentzia.

Hizkuntza indartsu horiek ere arau bitartez bermatzen dute haien presentzia etiketan, argibideetan eta, oro har, kontsumo-harremanetan. Arau bitartez etiketatzen dira produktuak eta bete ezean ondorioak ditu enpresa zein entitateentzako.

Euskal Autonomia Erkidegoan 6/2003 Legea dago, Pertsona Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Eskubideei buruzkoa. Lege hori garatzeko Eusko Jaurilaritzak 123/2008 Dekretua onartu zuen pertsona kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzkoa.

Dekretu horrek ahozko zein idatzizko komunikazioan betebeharrak ezartzen dizkie Euskal Autonomia Erkidegoako lurralde-eremuan jarduten duten denda-kate handiei, komunikazio-operadoreei, garraio zerbitzuetako enpresei, entitate finantzarioei, energia elektrikoa, petrolio-erregaiak eta gas naturala hornitzen duten enpresei, etxebizitzak saldu edo alokatzen dituztenei edo eraikuntza-obren sustatzaileei. Bada horiekiko guztietan euskaraz mintzatzeko, hartu-eman euskaraz egiteko oztzopengatik kexatu dira herritarrak.





Halere, Dekretu horretan jasotzen diren betebeharrak ez betetzeak ez die inolako eraginik sortzen enpresa horiei. Horrela, publizitate-aldizkariak, errotulazioak, establezimendu barruko karteak, kanpo-seinaleztapenak eta irudi orokorrak maiz utzi dute bazter euskarara eta ohikoa izan da gaztelania hutsean egotea. Ahozko hartu-emanetan edota komunikazioan euskaraz mintzatzeko ezintasunaz ere kexatu dira herritarrak.

Ostalaritzan, merkataritza txikian eta bestelako zerbitzu orokorrak eta profesionalak jasotzeko orduan ere, hamaika traba gainditu behar izaten dira kontsumo-harremanak euskaraz egiteko eta asko dago egiteko euskaldunen hizkuntza-eskubideak berma daitezen: ahozko zerbitzua euskaraz jaso ez izana eta publizitate euskarriak, webgunea, hizkuntza-paisaia eta idatzizko komunikazioa euskaraz ez egotea izan dira kexa gehienen arrazoiak.

Ingelesak gero eta presentzia handiagoa du, bai eta errotuluetan eta testuetan ere. Are eta handiagoa hiri handietan. Ingelesarekin batera beste hizkuntza batzuk ere ikus daitezke: frantsesa, alemanera, italiara... Mezu horiek turistei zuzendutakoak izaten dira, hiri kosmopolita eta modernoa zabaltzearen ideia indartzeko balio dezaketelakoan edo. Horrek euskarara ikusgabe bihurtzea ekarri du, izan ere, badirudi euskarak ez duela erakargarritasunik edo xarmarik.



“Merkataritzan, ostalaritzan eta bestelako zerbitzuetan jasotzeko orduan asko dago egiteko kontsumo-harremanak euskaraz egin ahal izateko.”



MINTZALDI SOLASALDIA
URRIAREN 25ean,
OSTEGUNA
18:00etan

CHARLA COLOQUIO
JUEVES
25 DE OCTUBRE
18:00 HORAS

Adolescencia y nuevas tecnologías: Riesgos en la era digital.

Hizlariak:
Ponentes:
Naiara Cayetano
Enfermera Pública.
Juan Manuel Machimbarrena
Doctor en Psicología.
Investigador postdoctoral en la Universidad Internacional de la Rioja (UNIR).

Entrada libre hasta completar aforo.

Tokia: **Sede Colegio Oficial de Enfermería de Gipuzkoa y Maestros Sanitarios 3,11** (Juan ARIECO, Amara) Donostia - San Sebastián

Zenbaitetan erakunde publikoetatik zabaltzen da ideia hori. Hori erakusten du Bizkaiko Ostalaritza Elkartek Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailarekin batera egindako akordioak. Doako itzulpen zerbitzua berria jarri zuten martxan 2018an ostalariek euren kartak eta menuak ingelerara, frantsesera eta alemanera itzul ditzaten. Ostalaritza Elkartek zerbitzu horretan euskarara itzultzeko proposamena egin bazuen ere, Eusko Jaurlaritzak ez zuen aitzat hartu hartzaileen profila atzerritarra zelako, alegia, irizpidea atzerritarrei zuzentzea zelako. Hortaz, turistei kartak eta menuak hiru hizkuntzatan eskaintzeko ostalariari erraztasunak ematen zaizkion bitartean, euskaldunok ez dugu merezi, nonbait, kartak eta menuak gure hizkuntzan izatea.

Nafarroako Foru Erkidegoan ez dago kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak aitortzen duen inolako araurik. Ondorioz, egoera horrek isla du herritar euskaldunen egunerokoan. Horrela euskarria edozein dela ere, erabiltzaileei orokorrean zuzendutako informazioa, bai eta publizitatea ere, gaztelania hutsean zabaldu ohi dute. Idazki pertsonalatuak ere gaztelaniaz jasotzen ditu herritarrak eta batere babesik gabe aurkitzen da.

Frantziako Estatuak, berriz, hizkuntza bakarrari, frantsesari, aitortzen dio existentzia eta Nafarroakoaren antzekoa da Ipar Euskal Herriko herritar euskaldunek aurkitzen duten egoera.

Ondorioz, esan daiteke nahikoa sistematikoa dela herritarrek pairatzen dituzten eskubide urraketak era guztietako kontsumo-harremanetan.



“Kontsumo harremanak euskaraz egiteko zailtasunek nekezagoa egiten dute euskaraz bizitzeko hautua egin duten erabiltzaileen bizitza.”



09 Ondorioak

Ondorioak

Idatziz zein ahoz, oraindik ere euskaraz jarduteko ezintasuna mota guztietako zerbitzu eta jardueretan islatzen da: osasun zerbitzuetan, segurtasun arloan, justiziaren eremuan, administrazio guztien jarduera orokorretan, hezkuntzan, aisialdian, komunikabideetan... baita kontsumo harremanetan ere. Balantza ez dago orekatuta eta nabarmena da frantsesaren eta gaztelaniaren nagusitasuna.

Euskal hizkuntza-komunitatea administrazio desberdinetan kokatuta egonik, hainbat ordenamendu juridikoren mende dago. Bada, lurralde osoko euskal hiztunek eta administrazio publikoaren eremu eta maila guztietan ikusi dute galarazita euskara askatasunean erabiltzea.


Espainiako Estatuko Administrazioaren joera egun indarrean dagoen ofizialtasun bikoitza ez errespetatzea da. Horrela, Espainiako Konstituzioak ezartzen duen gaztelania ezagutzeko derrigortasuna herritarren eskubideen gainetik jartzen dute, eta beraz, euskalduna babesik gabe geratzen da hizkuntza-eskubidea errespetatzeko eskatzen duenean.

Larria dira Frantziako Administrazioak hezkuntza-sistemari jarri dizkion trabak. 2018 urtean Hezkuntzan bereziki euskal hiztunen eskubideek urraketa nabarmenak izan dituzte. Ikasleek Brebeta eta Baxoa euskaraz pasatzeko oztupoak, Ikastoletan lanpostuen murrizketak, hezkuntza publikoko sisteman euskararen irakaskuntzaren aukerak mehatxu pean postuen murrizketa direla edo postu berriak irekitzea eragotziz.

Bestalde, Nafarroako Foru Erkidegoan, 2018an egin diren lan deialdietan ez da aurrerapauso garrantzitsurik eman; are okerrago, sistematikoki ez da puntuatu euskara eta “eremu ez euskalduna” deiturikoan alemana, frantsesa eta ingelesa baloratu dira baina euskara ez.

Eusko Jaurlaritzaren mende dauden erakundeek ere ez dute herritar guztien aukera berdintasuna bermatu. Larrienak osasun eremuari lotutako kekek dira: zerbitzu asistentziala euskaraz ezin jasotzea, pediatriarekin euskaraz ezin aritzea... Ertzaintzarekin arreta euskaraz eta egoki jasotzeko ere oztupoak izan ditu herritarrak. Zenbaitetan agintekeriaz jokatzuz eta jarrera desegokiak agertuz.

Administrazio zerbitzuetatik kanpo, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Ipar Euskal Herrian linboan segitzen dute erabiltzaile eta kontsumitzaile euskaldunen eskubideak, inongo aitortzarik gabe. Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak arautzen dituen Legea eta Dekretua badauden arren, eskubidea diskurtsoan geratzen da, ez betetzeak ez baitu inongo ondoriorik. Horrela, kontsumo harremanetan lurralde guztietan urratzen zaizkie eskubideak euskal hiztunei maiz eta debalde.



“Idatziz zein ahoz, oraindik ere euskaraz jarduteko ezintasuna mota guztietako zerbitzu eta jardueretan islatzen da. Balantza ez dago orekatuta eta nabarmena da frantsesaren eta gaztelaniaren nagusitasuna.”

UDALAK, HERRITARREN LEHENENGO ATEA

Euskal herritar guztiek dute euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea, nola hitzez hala idatziz, eta herri organo eta administrazio guztiei dagokie euskal hiztunen eskubide linguistikoak garantizatzeko neurriak hartzea. Erakunde publiko bakoitzari dagokio, dituen eskuduntzen barruan, herritarrekiko harremanetan euskara erabiltzeko aukerak ziurtatzea. Administrazio guztiak daude inplikaturik zeregin horretan.

Botere publiko guztiei dagokien betebeharrak horrek dimentsio garrantzitsua hartzen du udal eta herriko etxeen eremuan. Izan ere, udalak dira herritarrek arazoak konpontzeko jotzen duten lehendabiziko atea. Herritarren ingurunea, neurri handi batean, udalerrien mugen barruan egosten da eta hauen hizkuntza jokabidea eta politika funtsezkoa da euskara erabiltzeko aukerak emateko eta herritarren hizkuntza-eskubideak asetzeko. Bereziki udalek zeregin garrantzitsua daukate zeregin horretan.

Ez dago hizkuntzarik gabeko udal ekintzarik. Hizkuntza batean ala bestean, baina beti hizkuntzaren batean bideratzen dira ekintzak. Hondakinen kudeaketa, trafikoa, etxegintza, ura, zergak, segurtasuna, zerbitzu sozialak, haurtzaindegiak, turismoa... askotarikoak dira udalek eta herriko etxeek eskaintzen eta kudeatzen dituzten zerbitzuak.

Horiez gain, bestelako interesguneekin lotutako jarduera asko eskaintzen dituzte toki-entitateek: kultur programazioak, kontserbatorioak, kiroldegietako eta bestelako ikastaroak, kirol jarduerak, kanpaldiak, aisialdirako bestelako iniziatibak...

Zerbitzu eta jarduera horien guztien antolamenduan euskararen presentzia bermatzea eta trataera duina eskaintzea, herritarrek hizkuntza hautatzeko duten eskubidea uneoro kontuan hartzea eta horren aldeko apustu irmoa egitea da hizkuntza hautuaren askatasuna eta herritarren arteko benetako berdintasuna segurtatzeko bidea.

Zenbaitetan udala da jarduera horiek zuzenean antolatzen dituen, bestetan dirulaguntza bidez sustatuak edo beste enpresa batek eskainiak. Udalaren ardurapeko zerbitzu publikoa den neurrian, udalak bete beharreko neurri berberak ezarri behar dizkiote herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu ahal izateko. Ez da beti gertatzen ordea. Esleipena erabakitzeke hizkuntza-irizpidea beharrezkoa den kasu askotan, ez da hizkuntza baldintzen inguruan hartutako erabakien jarraipenik egiten eta arauak ez du balio euskarazko arreta ziurtatzeko

Irudi korporatiboan, errotulazio eta ikus-entzunezkoetan, udalaren argitalpenetan, iragarkietan, publizitate-kanpainetan, prentsa-oharretan, web-orriaren eta sare sozialetan argitaratutako edukiak, udal ordezkarien aurkezpenetan eta esku hartzen duten jardueretan ere euskararen erabilera bermatu behar dute udalek.

Udalgintzaren muinean, gestioaren arlo guztietan, txertatu behar da hizkuntzaren irizpidea eta euskararen trataera egokia. Eta horrek zerbitzu hizkuntza ez ezik, euskara lan hizkuntza ere izatea eskatzen du. Herritarrek eginiko hautua errespetatzeko zerbitzu hizkuntzaren langa gainditu eta lan-hizkuntza izan behar du; horrela, lana euskaraz egiteko eskubidea ziurtatzearekin batera, hobea izango baita herritarrei ematen zaion erantzuna: euskaraz lan egiteko zenbat eta gaitasun eta ohitura handiagoa izan, orduan eta egokiagoa herritarrei ematen zaion erantzuna.

“Botere publiko guztiei dagokie herritarrekiko harremanetan euskara erabiltzeko aukerak ziurtatzea, baina betebeharrak horrek dimentsio garrantzitsua hartzen du udal eta herriko etxeen eremuan.”

Horretarako ezinbestekoa da udal plantilletan euskara laneko hizkuntza gisa sustatzea; beharrezkoa da alkate, auzapez eta zinegotziak euskaldunak izatea. Herritarren eskubideak bermatzea ez baita soilik jakineko zinegotziaren esku utz daitekeen kontua, are gutxiago euskara zerbitzu edo itzultzailearen bizkar geratuko dena. Agintari bakoitza da bere esparruan hizkuntza normalizazioaren erantzule: hirigintza arduraduna, ongizate alorrekoa.... zinegotzi bakoitzak bere lan eremuan hizkuntzaren ardura bere gain kokatu behar du.

Euskal Herriko herri eta hiri sare zabalean egoera ezberdina da ikuspegi askotatik -herriaren neurria eta izaera, jendartearen osaketa, herrialdea, legedia eta beste-, ezin da egoera bateratu batez mintzatu, aldeak daude udal eta herriko etxe batetik bestera, baina bakoitzaren errealitatetik abiatuta, ekarpen handia egin dezakete euskararen normalizazioan.

Herritarren hizkuntza-eskubideak arauz ez badira bermatzen, kontratatzen diren langileak elebidunak ez badira, azpi-kontratazioetan eta esleitzen diren dirulaguntzetan hizkuntza irizpiderik ez badago eta neurri betearazlerik ez bada ezartzen, nekez bermatuko da herritarrekiko komunikazioan euskaraz bermatzea.

Udala edo herriko etxea da herritarrengandik gertuen dagoen instituzioa. Udalen eskuhartzeak presentzia handia du gure herri eta hirietan eta toki administrazioen jokabideak eragin handia du herritarren egunerokoa, eragina du udalerrien dinamika politiko, sozial kultural eta ekonomikoan, eragin zuzena du bai gizarte bizitzan bai eta herritarrengan ere.

Udalek eta herriko etxeek, beren autonomia eta eskumenak baliatuz, ekarpen handia egin dezakete, bide-erakusle eta eredu izan behar dute herritarren euskaraz bizitzeko nahia errealitate bihurtzeko.



“Udala edo herriko etxea da herritarrengandik gertuen dagoen instituzioa. Hauen jokabidea eta politika funtsezkoa da euskara erabiltzeko aukerak emateko eta herritarren hizkuntza-eskubideak asetzeko.”

11 Datuak

2018ko datuak

MOTA	KOPURUA
Izaera gabeak	2
Kontsultak	11
Kexak	767
Zoriontzeak	58
Iradokizunak	9
Orotara	847

Sektore sozioekonomikoko datuak


EREMUA	KOPURUA
Aisialdia	37
Aseguru etxeak eta finantzak	22
Eragileak	18
Industria, ekonomia, ikerketa	4
Interes orokorreko zerbitzuak	28
Merkataritza handia / Elikadura / Ostalaritza	137
Merkataritza txikia / Profesionalak eta zerbitzuak	34
Orotara	280

Sektore publikoko datuak

ERAKUNDEA	KOPURUA
Espainiako Estatuko Administrazioa	43
Frantziako Estatuko Administrazioa	3
Eusko Jaurlaritza	153
Nafarroako Gobernua	66
Arabako Foru Aldundia	7
Bizkaiko Foru Aldundia	27
Gipuzkoako Foru Aldundia	20
Ipar Euskal Herriko Udalak	13
Nafarroako Udalak	38
Arabako Udalak	14
Bizkaiko Udalak	48
Gipuzkoako Udalak	43
Mankomunitateak	6
Europar Batasuna	1
Euskal Hirigune Elkargoa	3
Nafarroako Arartekoa	1
Bizkaiko Batzar Nagusiak	1
Orotara	487

Dosierren bilakaera

KASU KOPURUAREN BILAKAERA 2002-2018





HIZKUNTZ ESKUBIDEEN
BEHATOKIA